

BARAKALDO

Lortutako puntuak: 1,136

| Herrialdea | Ezagutza | Alkatetzan dagoen alderdia |
|------------------------------|-----------------------|----------------------------------|
| Bizkaia | %34,4 | PSE-EE |
| Eremu administratiboa | Euskaldunak | |
| EAE | %9,8 | Aurreko legegintzaldietan |
| Eremu juridikoa | la euskaldunak | PSE-EE |
| Ofiziala | %24,6 | PSE-EE |

POSITIBOKI NABARMENTZEKOAK




Atal honetan ezer positiboki nabarmentzeko orduan ez dugu aurkitu espresu aipatzekoa den erabaki edo neurririk.

HUTSUNE AIPAGARRIENAK



- ✗ Udal-ordenantzarik ez du. Plan orokorrik ez du. Euskara zerbitzurik ez.
- ✗ Udalak ez du erabakirik hartu herritarren aholkularitzarako herrian lan egiten duten zerbitzu espezifikoek (emakumeak, langabetuak, kontsumitzaileak...) euskarazko zerbitzua eskain dezaten.
- ✗ Udalak ez dauka lan munduan enpresak euskalduntzeko eta merkataritzan erabilera areagotzeko egitasmorik abian.
- ✗ Udalaren komunikazio ofizialetan euskarari lekuren bat egiteko erabakia hartu da erdarari lehentasun osoa emanik.
- ✗ Inolako atalik ez da euskaraz ari eta ez dago horretarako inolako plangintzarik.



Herrian hartutako argazkia.
Erdara hutsean.